

## **2000KO AZAROAREN 29AN, GOBERNU BATZORDEAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA**

**LEKUA:** Beasaingo Udalerria

**ARETOA:** Batzar Aretoa

**EGUNA:** Hogeita bederatzia

**HILABETEA:** Azaroa

**URTEA:** Bi mila

**HASIERAKO ORDUA:** Goizeko bederatzia

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Lau (3)

**MAHAIBURUA:** Jon Jauregi Bereziartua

**BILDUAK:** Josi Insausti Mujika

Arantxa Aseginolaza Azkargorta

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

### **1- AURREKO AKTA**

2000ko azaroaren 8ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da inolako aldaketarik aurkeztu ez delako.

**2- ONDASUNAK TRUKATZEA.** 1 Sektoreko A 5 lursailan Udalak duen partzipazioa besterentzea, Txarako Industrialdean Zunzunegui duen beste batekin trukatzuz.

2000ko azaroaren 21eko hirigintza batzordeko aldeko txostena izanda, aho batez ondorengo erabakia hartu da:

“1998ko maiatzaren 22an, Beasaingo Udalak Zunzunegui, Aseginolaza eta Zatarain familiarekin hitzarmena eta salerosketa kontratua sinatu zituen. Dokumentu horietako estipulazioetan truke eragiketa jasotzen da eta aurrekarietan truke egitearen arrazoiak ematen dira.

1- 2000ko azaroaren 21ean arkitektoak txostena eman du trukatu behar diren ondasunen balorazioa eginez eta adieraziz trukatu behar diren ondasunak balio berdina daukatela eta 41.525.849 pezetakoa dela

2- Aurrekontu orokorraren baliabide arruntak, 1.525.829.978 pezetaraino iristen dira. Beraz, ondasun hauek balio dutena ez da kopuru honen %25era iristen. Horren ondorioz, ez da beharrezkoa aurrez Autonomi Erkidegoak baimena ematea. Halaber aurrekontuko baliabide arrunten %10eraino ez dira iristen eta horren ondorioz, trukea agintzeko eskurantzza Alkatearena baita.

Dena dela Alkateak berak gobernu batzordeari ordezkatu dio 10.000.000 baino goragoko ordainketak agintzea.

3- Ondasun Araudiaren 109, 112 eta 118 artikulak diotenaren arabera eta FAAren 123 artikulak ematen dituen eskurantzak ikusirik, gobernu batzordeari ondorengo AKORDIO-PROPOSAMENA EGITEN ZAIO:

**Lehenik.** Zunzunegui, Aseguinolaza eta Zatarain familiari ondorengo ondasuna besterentzea: Urbialde S. A.rekin proindibison jabea den finkaren %16,54 partizipazioa. Finka horren erregistroko datuek hauek dira: 11.441 lursaila, 1919 Tomoan, 209 Liburuan eta 172 orrialdean inskribatuta.

Ekintza honetarako Urbialde S. A.k ere, 2000ko azaroaren 22ko datarekin baimena eman du.

Partizipazio hau, Zunzunegui, Aseguinolaza eta Zatarain familiarenak diren 18.556 m<sup>2</sup>ko 4-i lursailarekin, 2.903 m<sup>2</sup>ko 4-l lursailarekin eta 12.684 m<sup>2</sup>ko lursailarekin trukaturiko da.

**Bigarren.** Teknikoak bere txostenean Udalak besterendu behar duen partizipazioa 41.525.849 pezetatan baloratu du eta Zunzunegui, Aseguinolaza eta Zatarain familiaren terrenoak 41.525.849 pezetatan.

**Hirugarren.** Prozedura hau, Autonomi Erkidegoan eskurantz duen organuaren jakinaren gainean jarriko da, Ondasun Araudiaren 109. artikulak dioena betez.

**Laugarren.** Alkate jaunari baimena ematea akordio hau jakinarazteko behar diren dokumentuak sinatzeko.”

#### **4- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko beste gairik ezean, bilera goizeko bederatziak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.